

11/06/2009

Urdaibaiko Guggenheimerako hitzarmena izenpetuko dute gaur

Bizkaiko Foru Aldundiak eta Guggenheim Bilbao museoak Urdaibain eraiki nahi duten Guggenheim berrirako urrats garrantzitsua egingo dute gaur sinatuko duten hitzarmenaren bidez.

Bi erakundeetako arduradun gorenek, Jose Luis Bilbao ahaldun nagusiak eta Juan Ignacio Bidarte museoko zuzendariak, Urdaibaiko naturgunean Guggenheim Bilbao museoa handitu aurreko lanak egiteko agiria izenpetuko dute.

Museoaren eraikin berria Urdaibain eraikitzeko nahia eta asmoa Bilbaok berak iragarri zuen, orain urtebete, munduaren aurrean gure bandera ontzia den museoarentzako hurrengo hogeitau urteetarako berme gisa, baina iragarpenak haridura sortu zuen, ehun milioi euroko inbertsioaren atzean itxuraz soilik Diputazioa eta museoa zeudelako.

Bi erakundeek egitasmoari buruzko zehaztapen gutxi eman dituzte orain arte. Gainera, Urdaibai naturgune babestua da, eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak egitasmoaren berririk ez zuela esan zuten orduan. Egun Jaurilaritzan dagoen alderdiak ere, PSE-EEk, egitasmoa kritikatu zuen.

A.B.